

ALEGIAKO

ORRIE



2021EKO OTSAILA • ARGITARATZAILEA: ALEGIAKO UDALA • DISEINUA ETA INPRIMAKETA: GARAIKO



4/5 «EZTANDA FEMINISTA JOMUGATZAT HARTUTA»

2/3 2021ERAKO UDAL AURREKONTUAREN XEHETASUNAK

6 BAZKIDE TXARTELAK BERRITZEA OTSAILERA ARTE

7 GIZARTE ZERBITZUEN GIDA HERRITARREN ESKURA

8 TAPIOAK BILTZEKO PUNTU BERRIA
KULTURARI BIDEA, AHAL DEN NEURRIAN



Zuhurtzian oinarritutako aurrekontua

Oinarritzko beharrei aurre egin eta pertsonen duintasuna ardatz hartuta, zuhurtzia handiz diseinatu du 2021erako aurrekontua Alegiako Udalak

Pasa den abenduaren 28an onartu zuen Alegiako udalbatzak 2021erako Udal Aurrekontua. Bizi dugun pandemia egoerak eta bere ondorioek eragin handia izan dute kontuak orekatzeko orduan.

Hasteko, 2021erako diru sarreraren kopuru osoa 2.077.791,56€koa da, 2020an baino 113.243,13€ gutxiago (-%5,17). Diru sarreraren jaitsierak, egungo egoera ezegonkorrak eta bizi dugun krisiak, gastuak zuhurtziaz pentsatzea eta lehentasunak ondo zehaztea eskatu dute.

Izan ere, 2021eko lehen hilabete hauen garapenak erakutsiko digu ezohiko edo presazko neurriak hartu behar ote diren, beste erakundeek (Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundia) eman ohi dituzten diru-laguntzak mantenduko diren hala ez eta baita, diru bilketaren bilakaera nolakoa izango den. Diru laguntzak eta proiektuen oniritziak iritsi ahala, aurrekontua moldatuz joatea da asmoa.

Gauzak horrela, zaintza eta gizarte babes publikoa, enplegu sustapena eta krisiaren ondorioei aurre egiteko neurriak izan dira arreta berezia jarri zaien arloak.

Zaintza, gizarte babes publikoa eta komunitate ongizatearen arloak:

Gizarte Zerbitzuetara 224.169,64€ (+2.947,16€), Osasun Publikoaren Babesera 13.699,04€ (+2.151,19€), Hezkuntzara 145.819,44€ (+23.912,09€) eta komunitate ongizatera 386.120,31€ (+2.814,92€)ko gastua aurreikusi da. Nahiz eta diru sarrerak jaitsi, partida hauetara 2020an baino diru gehiago bideratu da, krisi garai honetan, beharrik oinarritzkoenak asetzea delako gure nahia eta betebeharra.



Enplegu sustapenari dagokionez, 2020ko azaroan bi lanpostu eskaera onartu zitzaizkion herriari. Horiek Lanbide eta Tolosaldea Garatzenen bidez kudeatu ziren. Lanaldi osoan bi langile kontratatu dira, bata zortzi hilabeterako eta bestea seirako.

Krisiaren ondorioei aurre egiteko neurrien artean berriz, Udal Gobernuak

urrian erabaki zuen ordenantza fiskalak ez aldatzea eta 2020koak mantentzea, igoera edo jaitsierarik gabe. Horrez gain, komertzioari laguntzeko bono kanpaina bat antolatu da eta itxita egon ziren denboraren arabera, zabor tasa kendu zaie eta uraren zati finkoa ez diete kobratu.

Arlo horiez gain, subiraultza energetikoa lortzeko inbertsioekin jarraituko da, efizientzia energetikoa hobetzeko proiektuekin eta energia berriztagarrien aldeko apustua berretsiz. Zentzu horretan, Udal eraikin guztiei auditoria energetikoa egin eta bakoitzaren ziurtagiri energetiko maila zein den jakingo da. Esfortzu horrekin, energiaren arloan egin beharreko inbertsioak lehenesteko datuak izango ditu Alegiako Udalak.

Laburbilduz, oinarritzko beharrei aurre egin, pertsonen duintasuna bermatzeko baliabideak ziurtatu eta egoera zail honetatik inor atzean utzi gabe irtetzeko dugun helburura bidean, beste urrats bat da aurrekontu hau. Ea egoerak hobera egin eta epe motzean berri hobek emateko moduan gauden.



2021eko aurrekontuaren kapitulukako bilduma

Sarrerak

A) Eragiketa arruntak		
1. Kap.	Zuzeneko zergak	468.700,00
2. Kap.	Zeharkako zergak	20.000,00
3. Kap.	Tasak eta bestelako zergak	198.960,00
4. Kap.	Transferentzia arruntak	1.388.931,56
5. Kap.	Ondare sarrerak	1.200,00
2.077.791,56		

B) Kapital-eragiketak		
6. Kap.	Inbertsio errealak besterenganatetik eta hirigintzako jardueretatik ondorioztatutako beste sarrera batzuk	0,00
7. Kap.	Kapital transferentziak	0,00
8. Kap.	Finantza aktiboak	0,00
9. Kap.	Finantza pasiboak	0,00

Gastuak

A) Eragiketa arruntak		
1. Kap.	Pertsonal gastuak	775.170,71
2. Kap.	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	736.916,64
3. Kap.	Finantza gastuak	7.862,41
4. Kap.	Transferentzia arruntak	408.921,92
5. Kap.	Kreditu globala eta bestelako ustekabeak	50.000,00
2.077.791,56		

B) Kapital-eragiketak		
6. Kap.	Inbertsio errealak	7.500,00
7. Kap.	Kapital transferentziak	0,00
8. Kap.	Finantza aktiboak	0,00
9. Kap.	Finantza pasiboak	91.419,88

Eztanda feminista jomugatzat hartuta



Norbanakotik talde txiki batera eta handik handiago batera. Modu horretan azaldu daiteke, oso azaletik bada ere, Alegiako Eztanda talde feministaren sorrera. Duela bi urte egin zen autodefentsa feministako tailer baten ostean hasi zen sustraitzen 2020ko azaroan loratu den ekimena. Tailer hura eta gero, bertan parte hartu zuen neska talde bat beraien arteko kezkak partekatzen hasi zen eta talde feminista bat sortzeko beharra sentitu zuten. Adin talde ezberdinetakoak zi-

renez, une hartan han ez zeuden neskekin gaia lantzea eta eztabaidatzeko elkartzea ideia ona iruditu zitzaien.

“Hasiera hartan data seinalatuetan ekintzaren bat egiteko hasi ginen elkartzen. Orduetik, barrura begira aritu gara gehienbat, gure beharrak asetzeko formakuntzan zentratuz”. Horrela azaldu dituzte Eztandako kideek Uxue Urzelai eta Kattalin Miner bidelagun zituztela emandako lehen urrats haiek. “Denon artean, konfiantzazko eta errespetuzko espazio eroso bat

sortu dugu gure beldur, ezinegon, min, kezka eta abarrez hitz egin eta esperientziak partekatzeko, zapalkuntza eta erasoak identifikatzeko eta baita ‘normaltzat’ hartzen ditugun egoerak iraultzeko ere”.

Taldearen beharrak asetzeko formakuntzan zentratuta barrura begirako lanketa egin ostean, jendaurrean beraien buruaren berri ematea erabaki zuten eta horretarako azaroaren 25ean ospatzen den Emakumeengana Indarkeriaren Aurkako Nazioar-

Herri mailako kontzientziazioan asko dugula egiteko dio duela bi urte tailer baten ostean piztu zen metxaren bidetik, iazko azaroan jendaurrerako urratsa eman zuen Alegiako Eztanda talde feministak

teko Egunaren testuingurua baliatu zuten. Azaroaren 25ean indarkeria hori arbuiatzeko kontzentrazio baterako deialdia egin zuten eta azaroaren 28an aurkezpen ekitaldia burutu zen Alegiako zinean. Bertan bildu zirenek, Eztanda talde feminista ezagutzeko aukera izan zuten eta bertso saio batenekin osatu zen ekitaldia. “Aurkezpen hari esker, oso animatuta eta gogotsu hasi diren kide berriak batu zaizkigu taldera eta horrek indar handia eman digu. Hala ere, taldea irekia da, beraz, atek zabalik ditugu herriko emakume guztientzat”. Horrenbestean, taldea gizartratzeak ekarpen positiboa egin die eta bide horretan jarraitzea dute helburu. Taldera batu nahiko lukeen norbait balego, eztandafeminista@gmail.com helbidera idatzi dezake.

Eztanda taldeak dituen jomuga eta egitekoen inguruan, bat baino gehiago zerrendatu dituzte. “Batetik, gertaera eta eraso posibleei erantzuna eman nahi diegu eta bestetik, herrian zein hutsune dagoen identifikatu eta feminismoari presentzia ematea dugu helburu, herritarrek kontzientzia hartu dezaten. Gainera, herriko emakumeei, gazte, heldu zein zaharrei, babes, ahotsa, konfiantza eta segurtasuna eman nahi diegu eta horretarako, gune seguru hau herrian eskuragarri jarri”.

Beraien ikuspuntutik Alegiari egiten dioten argazkiaz galdetuta, oraindik



kontzientziazio lan handia dagoela egiteko erantzun dute. “Badiudiz jendeari iruditzen zaiola gure herrian ez dela erasorik gertatzen eta arazo hauek aspaldi gaudituta daudela eta beraz, ez dagoela lanketa bat egiteko beharrik. Baina herrian jende asko dago oraindik kontzientziarik gabe eta horri konponbide bat eman beharra dago. Izan ere, erasoak eguneroko ogia dira; ez dira urrutiko kontuak, etxetik hasi eta herrian bertan ere gertatzen dira. Gainera,

ez dira une puntualetan gertatzen, edonon, edonoiz eta edonori gerta dakizkioke: parranda giroan, lanean, kirola egitean, lagunartean, etxean... Horretarako, egiten ditugun ekintzez baliatu nahi dugu (tailerrak, hitzaldiak, kartelak, kontzentrazioak...) jendearen kontzientziazioa bultzatzeko”.

Eraso horien aurrean jarrera irmoa agertuko dutela eta genero desberdintasunean oinarritzen den jarrerarik ere ez dutela onartuko argi utzi nahi izan dute.

Bazkide txartelak berritzeko aukera otsailera arte

Lehenengo kuota normal ordainduko da eta pandemiak instalazioak ixtea eragingo balu, bigarren kuotan aldaketak egongo lirarteke

Alegiako Udalak otsailera bitartean gaiztatu du Inaxio Begiristain Kirol eta Kultur Etxeko bazkide txartelak berritzeko kanpaina. Urte berriari begira, 2020ko prezioak mantenduko dira. Lehenengo kuota normal ordainduko da eta bizi dugun egoera ezegonkorren eraginez instalazioak itxi beharko balira, itxialdi horren iraupenaren arabera kobratuko litzateke bigarrena. Jarraian azaltzen den moduan funtzionatuko da.

Ordainketa helbideratuta duten bazkideak

Lehen kuota otsailaren 22tik 26ra bitartean kargatuko zaie, helbideratuta duten kontuan. Baja eman nahi dutenek otsailaren 15a baino lehen

jakinarazi beharko dute eta txartela itzuli, kultur etxera bertara joanda.

Ordainketa helbideratu gabe duten bazkideak

Kontu zenbakia eman gabe dutenek eta 2021ean bazkide izaten jarraitu nahi dutenek, otsailaren 22a baino lehen dagokien kuotaren ordainketa egin beharko dute Kutxabankeko 2095-5020-03-1061513718 kontuan eta ordainagiria kultur etxean aurkeztu.

Aipatu aukerez gain, hilabeterako bazkide egiteko aukera ere eskaintzen da 20 euroko prezioan. Aldi berean, orain arte bazkide izan ez direnek eta egiteko interesa dutenek ere badute horretarako aukera. Informazio edo argibide gehiagorako kultur etxera jo daiteke edo 943 65 46 98 telefono zenbakira deitu.

Prezioak

Alegian erroldatuak

Alegian erroldatu gabeak
(erroldatuen kuota + %30)

Bazkide mota	Kuota	Bazkide mota	Kuota
Familiarra	155€	Familiarra	202€
Helduak	100€	Helduak	130€
Hobaridunak	62€	Hobaridunak	81€

Behar duenarentzat, eskura zer duen jakin dezan

Gizarte Zerbitzuek herritarren eskura dituzten baliabide guztiak biltzen dituen gida eguneratu eta denen eskura jarri da Udal webgunean

Udaleko Gizarte Zerbitzuen sailak herritarren eskura duen eta hainbatentzat baliagarri izan daitekeen gida bat eguneratu du. Bertan, eskaintzen diren baliabide eta prestazioen inguruko informazioa biltzen da eta horiez baliatu ahal izateko gauzatu beharreko prozeduren informazioa eskuratu dezakete herritarrek. Mendekotasun, desgaitasun, babesgabetasun, bazterketa edo larrialdi egoerak prebenitzeko, zein egoera horien eraginez sortutako beharrei erantzuteko osatu zen gida hori eta jarraian zerrendatzen da bertan aurkitu daitekeena.

Adineko pertsoneri eta desgaitasunak dituztenei balorazio zerbitzuak, etxez-etxeko laguntza, ibilgailuak aparkatzeko txartela, laguntza tekniko zein ekonomikoak, tele-laguntza eta

egoitzen inguruko zerbitzuak eskaintzen zaizkie. Horrekin batera, aldizkako prestazio ekonomikoaren ingurukoak ere biltzen dira. Menpekotasunaren prestazio ekonomikoak, gizarte ongizateko funtsezko pentsioak eta kotizatu gabeko pentsioak.


Familiaren eta elkarbizitzaren alorrean, desgaitasun edo mendekotasun egoeran dauden haurrentzako arreta goiztiarra, familiekin esku hartze psikosoziala edo gizarte zein hezkuntza mailako laguntza, familia ugarien titulua eta seme alaben jaiotzagatik edo adopzioagatik ematen diren laguntzak jasotzen ditu gidak.

Gizarteratzeko baliabide ezberdinak ere biltzen dira eta indarkeria

matxistaren eta sexu erasoaren aurrean, laguntza psikologikoa, juridikoa, biktimentzat egoitzetan babesa eta laguntza ekonomikoak jasotzen dira.

Azkenik, hezkuntza, Lanbide, Osakidetza, Etxebide eta beste hainbat sistemekin koordinatuta lan egiten da.

Gida hori Udalaren webgunean kontsultatu daiteke eta informazio gehiago nahi dutenek gizarte zerbitzuen bulegora jo dezakete. Bulegoak astelehenetik ostiralera 9:00etatik 12:00etara eskaintzen du jendaurreko zerbitzua eta aurrez hitzordua hartu behar da 943 65 47 68 telefono zenbakira deituta edo gizarte@alegia.eus helbide elektronikora idatzita





Solidarioa bezain arrakastatsua

San Juan kaleko 64an jarri den bilketa puntu berrian tapoiak barrura sartzeko eskatzen da, poltsak kanpoan utzi gabe

2016ko otsailean ekin zitzaion Alegian tapoi bilketa solidarioari. Gaixotasun arraroak dituzten haurrek tratamenduak jaso ahal izateko baliabide ekonomikoak ahalbidetzea da ekimenaren helburua. Plastikozko tapoiak bildu eta trukean jasotzen den dirua, gaixo horien bizi kalitatea ahal den neurrian hobetzera bideratzen da.

Maite Davila herritarraren ekimenez jarri zen martxan Alegiako bilketa. 2020ko martxora bitartean kultur etxean jaso izan dira tapoiak baina pandemiaren eraginez eraikina itxi zen eta Davilak bere kontura jarraitu zuen bilketaekin. Jasotzen zuen tapoi kopurua ikusita, herrian bilketa puntu bat jarri da, donazio pribatu bati esker. Bihotz formako edukiontzi bat kokatu da San Juan kaleko 64 zenbakiko atarian.

Ekimena sekulako erantzuna ari da jasotzen. Gipuzkoako herri askotatik ari dira tapoiak ekartzen eta ekimenaren sustatzaileek, jendearen eskuzabaltasuna eta elkartasuna eskertzearekin batera, funtzionamendua hobetu dezakeen ohar bat ere luzatu nahi izan dute. Tapoiak zuzenean bihotzera botatzeko deia egiten zaie herritarrei, bizi dugun egoeran poltsak kanpoan uztea baino osasungarriagoa delako.

Kulturari bidea, ahal den neurrian

Osasun neurri guztiak hartuz ekitaldi ezberdinak egin dira udazkenean kultur etxeko eta zineko azpiegiturak baliatuz

Osasun krisialdiaren aurreko erritmoan eta baldintzetan izan gabe baina egoerak ahalbidetu duen neurrian, Alegiako Kultura batzordeak udazkenean zehar berrekin dio herriko eskaintza kulturalari. Indarrean diren segurtasun neurri guztiak hartuz egin diren ekitaldiak izan dira eta horretarako egokitutako eremuetan egin dira, zinean eta kultur etxean.

Kultur etxeari dagokionean, irakurle taldeak saio bana egin zuen irailean eta abenduan. Urrian, azaroan eta abenduan haurrei zuzenduriko ipuin kontaketa saioak ere egin dira. Zinean ere egin dira ekitaldiak. Abenduan Zuhaitz Gurrutxagaren 'FutbolisTOK' bakarriketa egin zen eta Andoni Mutiloak 'Esnatu naiz' kabareta eskaini zuen. Gabon garaian, Olentzero eta Mari Domingiren zein errege magoen harrerak ere egin dira.

Ekitaldi horiek guztiek erantzun ona jaso dute herritarren aldetik. Udala jakitun da bizi dugun aro honetan gizarteak asko estimatzen dituela aisialdi aukera ezberdinak eta Kultura batzordearen asmoa da egoerak ahalbidetzen duen neurrian, kultura eskaintzari bidea ematen jarraitzea.

